

# Zarauzko Udala

## Hezkuntza Departamentua

### Zarauzko udalerriko ikastetxeei 2023-2024 ikasturtean programa osagarriak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

- Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE) eta horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE).
- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 2022ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
- Zarauzko udalerriko ikastetxeei programa osagarriak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (BOE 236 zk., 2015eko urriaren 2koa).

2024ko apirila

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Zuzkidura eta aurrekontuen partida
4. Instrukzioa eta proposamena
5. Dirulaguntza emateko irizpideak
6. Ebazteko eta jakinarazteko epea
7. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa
8. Publizitatea
9. Diruz lagundu ahalko diren gastuak
10. Araudia
11. Errekurtsoak

## 1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko udalerriko irakaskuntza arautuko zentroek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. 2023-2024 ikasturtean zehar ikastetxeek garatuko dituzten ekintza osagarriak eta programen interesa bat etorriko dira Hezkuntza Departamentuaren programen helburuekin, betiere Udal Eskola Kontseiluari kontsultatu ondoren.

Dirulaguntza hauek eskola-batzordeek bultzatutako jarduerak finantzatzeko sortu dira, eta hezkuntza-eskaintza osatzea dute helburu.

Espresuki deialdi honetatik kanpo utziko dira irakaskuntza arautuko ikastetxeak ez diren entitate guztiak.

Honako helburuak dituzten ekintza osagarriak egiteko eskatu ahal izango dira dirulaguntzak:

1. Eskola-komunitatearen bizikidetzan (ikasleak, irakasleak, gurasoak) hobekuntza ekar dezaketenak.
2. Ikaslearen kreatibitatea, gaitasun pertsonalak eta autoestimua bultzatzen lagunduko dutenak (musika, dantza...)
3. Giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsa bultzatzera bideratutakoak.
4. Ohitura osasuntsuak bultzatzera bideratutakoak: elikadura, higiena, kirola, aisia, sexu-harremanak.
5. Gizarte-gaietan parte hartzeko eta inplikatzeko kultura bultzatzera bideratutakoak (asoziazionismoa, elkartasuna, kultur integrazioa...).
6. Lan-arriskuen prebentziora bideratutakoak.
7. Ingurumenarekiko sentsibilizazioa lortzera bideratutakoak.

Egingo diren jarduerak, beren helburuen artean, beti izan beharko dute eskolako giroa hobetzen laguntzea, eta, lehentasunez, eskolako ordutegitik kanpo egingo dira.

Dirulaguntzak ekintza osagarri hauek egiteko eskatu ahal izango dira:

1. Euskal kulturarekin lotutako jarduerak, hala nola folklorea eta gorputz-adierazpena.
2. Zarauzko udalerriko ezaugarri nagusiak ezagutzeko jarduerak.
3. Hezkuntza Departamentuak Udal Eskola Kontseiluari entzun ondoren onartu eta baimendutako beste guztiak.

Diruz lagundutako jarduerak koordinatzea eta ikuskatzea Hezkuntzako Udal Ordezkaritzari dagokio.

## 2. ESKAERAK

Eskolaurre, LH, DBH, Batxilergo eta Zikloetarako eskolak ematen diren Zarauzko irakaskuntza arautuko ikastetxeek eta APA Orokieta H.E.- Balurdin Guraso Elkarteak eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Legearen arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egon behar dute, IFZa eduki eta beren jardura Zarauzko udalerrian garatu. Halaber, zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Udal honetako betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

Ez da beharrezkoa izango interesdunaren adostasuna, eta administrazioak, bere eskumenak baliatuz, behar diren egiaztapenak egin ahal izango ditu datuen zehaztasuna egiaztatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak kontsultatu eta biltzeko. Interesduna ados ez badago, berak aurkeztu beharko du, elektronikoki, eskatutako dokumentazio guztia.

**E-01 Hezkuntza** inprimaki espezifikoa, ondo eta guztiz beteta, udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, telematikoki, hilabeteko epean, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaerarekin batera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 14. artikuluan jarritako dokumentazioa aurkeztuko da.

## 3. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUEN PARTIDA

Dirulaguntza ondoko partidatik aterako da, eta gehienezko kopurua ondorengo izango da:

**Partida:** 1.0801.481.01.323.00.2024 (7447)

Dirulaguntzak, Programa Osagarriak: 35.000,00 €

Dirulaguntzak honela banatuko dira:

- Kopuru osoaren % 75, kontzesioaren unean.
- Gainerako % 25a, fakturak eta agiri guztiak jasotakoan.

## 4. INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzaileko 17. artikuluan jarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Hezkuntzako arduraduna.
- Balioespen Batzordea: kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

## 5. DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Oinarri Espezifikoaren 4. artikuluan ezarritakoak.

Ikastetxeko jardueretan parte hartu duten talde-kopuruaren arabera egingo da banaketa derrigorrezko hezkuntzan; eta erabiltzaile kopuruaren arabera, besteetan.

Dirulaguntza osoaren % 70 derrigorrezko hezkuntzan banatuko da, eta % 30, besteetan.

Euskarari dagokionez:

- a) 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardueretan euskararen erabilera bereziki bermatuko da arlo guztietan, bai hedapenean bai jarduera bera gauzatzekoan.
- b) Mezu idatziei dagokienez (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera-txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), euskaraz idatzi eta zabalduko dira, jarduera euskaraz egiten bada; bestela, bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Bi hizkuntzetan idazten diren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa goian edo ezkerretan, eta gaztelaniazkoa behean edo eskuinean) bai neurriaren aldetik. Euskarazko testuak zuzen idatzita daudela bermatzeko, entitate onuradunak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira jatorriz euskaraz idatzita ez dauden liburuak, aldizkariak eta abar, betiere horien itzulpena ekimenaren helburuetatik eta baliabideetatik kanpo badago.
- c) Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, hizlariak, irakasle/monitorea, bozgorailuetako mezuak, irratietakoak, musika...) euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira (euskara eta gaztelania). Biak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna. Irizpide hori betetzen dela bermatzeko, entitate onuradunak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira jatorriz euskaldunak ez diren hizlariak, baldin eta garatuko den gaiak edo bere jatorriak hala justifikatzen badu.
- d) Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

## 6. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 39/2015 Legeak 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da. Dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik

agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren tramitea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ematen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Interesdunei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1ko 39/2015 Legeak 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Emandako dirulaguntzak argitaratuko ditu Udalak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan jarritakoaren arabera.

## **7. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA**

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN eta Hezkuntza Departamentuaren oinarri espezifikoa jarritakoari jarraiki egingo da. Justifikazio-kontuaren modalitatea erabiliko da.

## **8. PUBLIZITATEA**

Dirulaguntzaren onuradunak diruz lagundutako edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, eta publizitatea idatzia bada, Zarauzko Udalaren logotipoa sartu beharko du.

## **9. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK**

Berez eta zalantzarik gabe jarduerarenak diren gastuek jaso ahal izango dute dirulaguntza. Deialdiaren xedean definitutako jarduerak izango dira.

## **10. ARAUDIA**

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

1. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE) eta horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE)
2. Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5koa, 66 zk.).
3. Zarauzko udalerriko ikastetxeei programa osagarriak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5koa, 66 zk.).

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (BOE 236 zk., 2015eko urriaren 2koa).

## **11. ERREKURTSOAK**

Deialdi honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo, zuzenean, inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira bi kasuetan.

Zarautzen, 2024ko apirilaren 23an